

KONTSUMITZAILE ETA ERABILTZAILEEN ESTATUTUA ARAUTZEN DUEN FORU LEGEA ONESTEKO BEHARRARI ETA EGOKITASUNARI BURUZKO TXOSTENA

Kontsumitzaile edo erabiltzaileen defentsa politika sozial eta ekonomikoa zuzentzen duen printzipio bat dela aurreikusirik dago Espainiako Konstituzioan, zeinak, 51. artikuluan agintzen baitie botere publikoei defentsa hori berma dezatela, prozedura eraginkorren bidez segurtasuna, osasuna eta interes ekonomiko legitimoak babestuz.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 56.1.d) artikulua Foru Komunitateari eskumen osoa ematen dio kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsaren arloan, horrek galarazi gabe prezioei buruzko politika, Estatuko lurraldearen barneko ondasunen joan-etorri librea eta lehiaren defentsari buruzko legeria.

Eskumen horretaz baliatuz, Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzko ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legea onetsi zen, eta haren bidez gure lurralde historikoko herritarrei gai honi buruzko Nafarroako aurreneko arau orokorra eman zitzaion.

Ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legea aldarrikatu eta indarra hartu zuenetik ia hamabost urte iragan dira. Denbora tarte luze honetan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako araudiaren xede den errealitate sozialean aldaketa sakona gertatu da, eta, horrekin batera, gaiari buruzko arauen multzoa ere asko handitu da bai Espainian bai European.

Horrenbestez, gaur egungo kontsumo merkatua, neurri handi batean, teknologikoa da, eta gehienetan webguneen bidez egiten da eskaintza; etorkizunerako, gainera, pentsatzekoa da urrutitik edo saltokietatik kanpo egindako kontratazioen kopurua askoz gehiago handituko dela.

Bestalde, garapen jasangarrirako helburuak direla eta, kontsumo arduratsua aintzat hartu eta sustatu beharra dago, eta horren baitan sartu elkarrekiko informazioaren kultura eta kontsumo ekintza ororen gaineko arduraz jabetzekoa, etorkizuneko belaunaldiek ingurune hobea izan dezaten, sozioekonomikoa nahiz ingurumenaren aldetikoa.

Foru lege berri honek, beraz, kontsumitzaile eta erabiltzaileen egiazko estatutu baten izaera izanen du, bertan jaso eta garatuko baitira haien eskubideak, eta horrekin batera pertsona hauen babeserako erregulazioa osatuko da, bereziki zaurgarriena.

Horrela, proposatutako arauak eskubide horiek babesteko hainbat bitarteko jasotzen ditu, gatazkak auzibidetik kanpo konpontzeko sistemen eta merkatuaren zainketaren esparruetan. Alde horretatik, aurreproiektuak arautzen ditu bitartekaritza eta arbitrajea, kontsumoaren arloko gatazkak auzibidetik kanpo konpontzeko tresnak diren aldetik, eta berritasunen artean agertzen da Foru Komunitateko sozietate publikoak eta Nafarroako toki entitateak kontsumoko arbitraje sistemari atxiki beharko zaizkiola nahitaez, kontsumo harreman batean zerbitzuak emateko jarduerak eragindako gatazkak konpontzeko.

Merkatuaren zainketa arautuari dagokionez, berritasun nabarmena da honakoak arautzen direla: laginak hartzea, kontsumitzaileentzako produktuen analisiak eta kautelazko neurriak, horiek hartzeko prozedura espezifikoko bat ere ezarritik.

Merkatuaren zainketarekin lotura zuzena du zehapen ahalmenaren erabilerak, zeinak ezartzen baititu, arau-hausteen legezkotasunaren printzipioarekin bat, arau-hauste mota

zabalagoak, espezifikoagoak eta egokiagoak ondasun eta zerbitzuen kontsumoan gaur egun dagoen errealitaterako, ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legean jaso zirenen aldean. Era berean, legezkoatasunaren eta zehapenen proportzionaltasunaren printzipioak aplikatuz, horien mailakatzea ere aurreikusten da, suerta daitezkeen zenbait inguruabarren arabera.

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesarekiko kezka ez da soilik ageri erregulazio substantiboaren ikuspegitik, arau honen onespenearekin, baizik eta, haratago joanez eta antolaketaren ikuspegitik ere, Nafarroako Gobernuari egiten zaion aginduarekin, Nafarroako Kontsumo eta Lehia Institutua sor dezan; horren bidez, Nafarroa berriz ere nabarmenduko da, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako erakunde bat, nortasun berekia duena, eratu duten erkidegoetako bat bihurtuko baita.

Finean, foru lege honen asmoa da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen defentsa sendotzea, kontsumo harremanak gertatzen diren agertoki berrietara moldatuz eta, aintzat hartuz, gainera, Europar Batasunean eta estatuan gertatu diren arau aldaketak, bai eta jurisprudenzia ere, alde batera utzi gabe azken urteetan bildu den esperientzia.

Amaitzeko, aipatu beharra dago arau honen tramitazioan ez dela bete aldez aurreko kontsultaren tramitea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikuluan aipatzen dena, tramite hori ez baita nahitaezkoa, aukerakoa baizik, foru lege aurreproiektuen kasuan, legeak berak ezartzen duenez.

KONSUMO ETA ARBITRAJE ZERBITZUKO ZUZENDARIA

(Sinadura txosten honen jatorrizkoan dago)